

DONOSTIA / Literatura solasaldia, gaur, Koldo Izagirrerekin ‘Sua nahi, Mr. Churchill?’ eleberriaz eta oro har, literaturaz hitz egingo dute

Erredakzioa

Euskal literaturaz, eta oro har, literaturaz entzun, gozatu eta hitz egiteko aukera ederra izango dute gaur literaturzaleek. Izan ere, Sua nahi, Mr. Churchill? Koldo Izagirreren eleberriaz solasaldia izango da Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan San Jeronimo kalean, 19:30ean. Solasaldian liburuaren egileak berak parte hartuko du. Donostia Kulturak eta Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak antolatutako ekimena da, DK-Literaturar egitasmoaren harira.

Koldo Izagirrek hasiko du solasaldia, liburuaren sarrera eginez, eta mintzaldi labur bat eskainiko du. Bertan, liburuaren zertzeladak emango ditu, dagokion testuinguruan kokatu asmoz. Ondoren, solasaldi irekia izango da, eta bertan edonork parte hartzeko aukera izango du.

Susa argitaletxeak argitaratutako hamazazpi ipuinez osatutako liburua da Sua nahi, Mr. Churchill?. Itsasoaz, gerraz, jende xehearen adorea eta erresistentziaz gogoeta egiten du Izagirrek, eta itsasoaren munduarekin lotuta daude protagonista guztiak.

Liburua dela eta, hainbat gai mahai gainean jarri dira euskal literaturaren alorrean: kritika literarioaren egoera eta funtzioa, euskal irakurlegoaren egoera... Beraz, liburuaz ez ezik, euskal literaturaz ere hitz egiteko aukera aparta eskainiko du solasaldiak.